



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO URTARRILAREN 29AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Ordezko idazkaria: Olatz de Miguel Arnaiz.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

*** 2018/12/05EKO EZOHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2018/12/05eko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2018/12/11KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2018/12/11ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2018ko dirulaguntzei dagokienez aipatu da iazko oinarrietan bai kirol arlokoetan eta baita kultura arlokoetan ere ezartzen zela hitzez-hitz "Bigarren zatiaren ordainketaren inguruko akordioa beranduenaz jota 2019ko urtarrileko azkeneko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu beharko du" eta bi sail horiek ez dituztela dirulaguntzen kitapenak ekarri gaurko batzarrerara.


2.- GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK: 2018KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA.

Esp.zk.: GZ.42/2018-0001

1.- Espedienteei buruzko datuak

Espedienteak:

ACABE	(GZ.29/2018-0108)	AVAIM	(GZ.29/2018-0424)
ADAHIGI	(GZ.29/2018-0132)	BEGISARE	(GZ.29/2018-0131)
ADEMG	(GZ.29/2018-0130)	BIKARTE	(GZ.29/2018-0113)



Usurbilgo Udala

AECC	(GZ.29/2018-0110)	GIP. ITXAROPEN TELEFONOA	(GZ.29/2018-0425)
AGI	(GZ.29/2018-0128)	GAUTENA	(GZ.29/2018-0109)
AGIFES	(GZ.29/2018-0112)	IZAN FUNDAZIOA	(GZ.29/2018-0107)
AGIPASE	(GZ.29/2018-0142)	GIP. ELIKAGAIEN BANKUA	(GZ.29/2018-0426)
ALCER	(GZ.29/2018/0129)	ORTZADAR ELKARTEA	(GZ.29/2018-0105)
ATECE	(GZ.29/2018-0106)	PAUSOKA ELKARTEA	(GZ.29/2018-0111)
ATZEGI	(GZ.29/2018-0127)		

2.- Ikusirik


2018ko otsailaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2018. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko ekainaren 12an egindako bilkuran, 2018. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzak behin betikoz onartu zituen.

Urtea amaiturik, elkarteek aurkeztutako justifikazioa hau da.

Laburtuz,


TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50	BIDERATU BEHARREKOA	OHARRAK
ACABE (Euskadiko anorexia eta bulimiaren aurkako elkarteak)	680,50€	340,25 €	340,25 €	
ADAHIGI (Arreta Gabeziaren Nahastea, Hiperaktibitatearekin edo gabe)	504,03€	252,02 €	252,01 €	
ADEMG I (Esklerosia anizkuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	261,38€	130,69 €	130,69 €	
AECC (Minbiziaren aurkako elkarteak)	590,00€	295,00 €	295,00 €	
AGI (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarteak)	570,20€	285,10 €	285,10 €	



Usurbilgo Udala

AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarteak)	636,38€	318,19 €	318,19 €	
AGIPASE (Guraso bananduen elkarteak)	680,50€	340,25 €	340,25 €	
ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	702,55€	351,28 €	351,27 €	
ATECE (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	636,38€	318,19 €	318,19 €	
ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarteak)	856,97€	428,49 €	- 428,49 €	Epez kanpo aurkeztua
AVAIM (Tratu txarrak jasotako haurren laguntzarako Euskal elkarteak)	879,03€	439,52 €	- 63,75 €	Bi ekintzetarako dirulaguntza onartu zitzaion eta bat bakarrik bideratu da
BEGISARE (Erretinosi pigmentarioa duten pertsonen elkarteak)	526,08€	263,04 €	263,04 €	
BIKARTE (Haur errusiar eta bielorrusiarren harrerarako elkarteak)	371,67€	185,84 €	185,83 €	
GIT (Gipuzkoako itxaropen telefonoa)	592,26€	296,13 €	296,13 €	
GAUTENA (Autismoaren Gipuzkoako Elkarteak)	500,00€	250,00 €	250,00 €	
IZAN FUNDAZIOA (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarteak)	812,85€	406,43 €	406,42 €	
GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	750,00€	375,00 €	375,00 €	
ORTZADAR ELKARTEA (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonei zuzendua)	724,61€	362,31 €	- 362,31 €	Epez kanpo aurkeztua
PAUSOKA ELKARTEA (Behar bereziak dituzten gurasoen elkarteak)	724,61€	362,31 €	362,30 €	

3.- Eta kontutan harturik



Usurbilgo Udala

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- 2018an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2018-02-13)

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

TALDEAREN IZENA	BIDERATU BEHARREKOA
ACABE (Euskadiko anorexia eta bulimiaren aurkako elkarteak)	340,25 €
ADAHIGI (Arreta Gabeziaren Nahastea, Hiperaktibitatearekin edo gabe)	252,01 €
ADEMG (Esklerosia anizkuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	130,69 €
AECC (Minbiziaren aurkako elkarteak)	295,00 €
AGI (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarteak)	285,10 €
AGIFES (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarteak)	318,19 €
AGIPASE (Guraso bananduen elkarteak)	340,25 €
ALCER (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	351,27 €
ATECE (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarteak)	318,19 €
BEGISARE (Erretinosi pigmentarioa duten pertsonen elkarteak)	263,04 €
BIKARTE (Haur errusiar eta bielorrusiarren harrerarako elkarteak)	185,83 €
GIT (Gipuzkoako itxaropen telefonoak)	296,13 €
GAUTENA (Autismoaren Gipuzkoako Elkarteak)	250,00 €
IZAN FUNDAZIOA (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarteak)	406,42 €
GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA	375,00 €
PAUSOKA ELKARTEA (Behar bereziak dituzten gurasoen elkarteak)	362,30 €



Usurbilgo Udala

Bigarrena: Honako eskatzaileei gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ez ordaintzea eta honako kopuruak bueltatzeko eskatzea:

TALDEAREN IZENA	UDALARI BUELTATU BEHARREK OA	ZIOA
ATZEGI (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarteak)	- 428,49 €	Epez kanpo aurkeztea
AVAIM (Tratu txarrak jasotako hurren laguntzarako Euskal elkarteak)	- 63,75 €	Ekintza bat ez bideratzea
ORTZADAR ELKARTEA (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonen zuzendua)	- 362,31 €	Epez kanpo aurkeztea

Diru itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da udalaren kontu hauetako batean:

KUTXABANK ES09 2095 5069 0710 6002 4832
EUSKADIKO KUTXA ES15 3035 0140 3014 0090 0017

Hirugarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: dirulaguntza irekiak: Elkarteen asmoak: 1.8000.481.231.03.02.2018 (**A 18/2018**)

Laugarrena: Interesatuei akordioaren berri emango zaie.

Bosgarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

3.- 2019. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI BATERATUKO OINARRI OROKORRAK ETA HAUEN ERANSKIN MODURA DOAZEN OINARRI ESPEZIFIKOAK ONARTZEA.

Esp.zk.: ID.23/2019-0043

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian hainbat alorretan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarri orokorrak atera nahi dituela.

Oinarri hauen helburua dela Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatuak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2019. urtean egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsonen.

Eta kontuan harturik



Usurbilgo Udala

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2017-2019 (2017/07/18)

Guzti hau kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2019an norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko programa desberdinen deialdi bateratuaren oinarri orokorrak onartzea.

Bigarrena: Oinarri orokorren eranskin moduan doazen zinpeko aitortpena eta oinarri espezifikokoak onartzea:

1. eranskina. Zinpeko Aitortpena.
2. eranskina. Gizarte Ongizatea saila.
 - 2.1. Gizarte Zerbitzuetako egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
3. eranskina. Ingurumen saila.
 - 3.1. Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
4. eranskina. Kirol saila.
 - 4.1. Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
 - 4.2. Emakumeen eta gizonen berdintasun kirol-jardueretako planak burutzeko dirulaguntzak.
 - 4.3. Kirol egokitutako jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
 - 4.4. Kirol elkartenak ez diren kirol jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
5. eranskina. Kultura saila.
 - 5.1. Kultur arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
6. eranskina. Nekazaritza eta Abeltzaintza saila.
 - 6.1. Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

Hirugarrena: Eranskin bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida hauen kargura joango da:

- 2.1. eranskina: 1.8000.481.231.03.02.2019 (12.000 euro)
- 3.1. eranskina: 1.6100.480.172.00.01.2019 (5.000 euro)
- 4.1. eranskina: 1.4300.481.341.00.01.2019 (50.000 euro)
- 4.2. eranskina: 1.4300.481.341.00.02.2019 (5.000 euro)
- 4.3. eranskina: 1.4300.481.341.00.06.2019 (3.000 euro)
- 4.4. eranskina: 1.4300.481.341.00.07.2019 (1.000 euro)
- 5.1. eranskina: 1.4000.481.334.00.03.2019 (80.000 euro)
- 6.1. eranskina: 1.6200.481.412.00.03.2019 (15.000 euro)

Laugarrena: Oinarri buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian argitaratzea.

Bosgarrena: Erabaki honen berri kontu-hartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

4.- DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEI ERANTZUTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp. Zkia.: GZ.42/2019-0004

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (barneratzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) herritik kanpo egon eta beraien ingurune familiarra etorri ezin diren pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorrien gastuak diruz lagundu nahi ditu.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du aipaturiko egoeran dauden pertsonen senideei joan-etorri gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko.

Hori horrela, 2019ko urtarrilaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean oinarri hauen berri eman zen.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen
- Diru laguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorri bidaien gastuak diruz laguntzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.03

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogeita egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

5.- IGOGAILUAK INSTALATZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: GZ.42/2019-0003

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailuaren instalazioa bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu, 2018. urtean zehar amaitutako instalazio jarduerak diruz laguntzeko. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapituluaren I. Atalak ezartzen duena jarraiki.

Hori horrela, 2019ko urtarrilaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean igogailuak instalatzeko dirulaguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hartu aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko dirulaguntzen oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1.8000.780.231.03.01.2019 dirulaguntza irekiak: igogailuak instalatu.

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogeit egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

6.- USURBILEN HUTSIK DAGOEN MERKATARITZA LOKAL BATEAN JARDUERA EKONOMIKO BERRI BAT ABIAN IPINI NAHI DUTEN EKINTZAILEENTZAT LOKALAREN ALOKAIURAKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: HE.06/2019-0003

Ikusirik



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak, 2019an ekintzaileei laguntzeko eta Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berriak sustatzeko asmoz, lokalaren alokairurako dirulaguntza arautu du.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatzailerak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2019. urtean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonorentzat, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda ere, Usurbil edo beste udalerrri bat. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2019an Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat ipini nahi duen ekintzailearentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.481.241.00.02, gehienez ere 7.200 € erabiliko dira 1. urteko alokairurako eta 4.800 € bigarren urterako.

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Eskerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2019ko irailaren 30 arte. Ebazpenak bi epetan emango dira: lehenengoa, 2019ko apirilaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena, eta bigarrena, 2019ko irailaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena.

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

7.- NORGEHIAGOKA ERREGIMENEOAK EZ DIREN KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko



Usurbilgo Udala

dituen oinarriak atera nahi ditu 2019 urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2019 urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri dirulaguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2019n norgehiagoka erregimenekoak ez diren Kirol egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi erantzen zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen diren diru izendapenak:

43	00	481	341	00	03	Laguntza bereziak	5.400 €
43	00	481	341	00	04	Taldeetako prestakuntza teknikoa	1.000 €
43	00	481	341	00	08	Oinarrizko kirol-miaketak	9.000 €

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogeitun egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.